ZEGAMAKO UDALA

2024KO MARTXOAREN 12AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO OTSAILAREN 13KO BILKURAREN AKTA).

2.- UEMA (UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA)-KO KIDETZARI ETA HAREN ESTATUTUEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

3.- ANGEL IRIGORAS ORMAZABALEK AURKEZTUTAKO EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN GUTXIENEKO 1.080 EUROKO PENTSIOAREN ALDEKO MOZIOA.

4.- 2024 URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA.

5.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

6.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).
Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Lierni Asurabarrena Zipitria.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2024KO OTSAILAREN 13KO BILKURAREN AKTA).

Aho batez onartzen da aurreko bilkuraren akta.

2.- UEMA (UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA)-KO KIDETZARI ETA HAREN ESTATUTUEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

Batzarkideei UEMAri buruzko informazioa eta Estatutuak banatu zaizkie.

UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) Euskal autonomi erkidegoko hainbat udalerrik osatzen dute. Mankomunitatearen helburu nagusiena euskara zerbitzua eskaintzea da bertako partaide diren udal administrazioen barne-jarduera zein udalerrietako Gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren Hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Zegamako Udala mankomunitateko kide egitea proposatzen da.

Aplikatu beharreko legedia:

Apirilak 7ko 2/2016 Euskadiko Erakunde Publikoen Legea.
Apirilak 2ko Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Legea.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Gaiaren azterketa:

Apirilak 7ko 2/2016 Euskadiko Erakunde Publikoaren 7. Artikuluak honela dio: " Euskararen arloan aitortutako eskumenak gauzatzeko,Toki-erakundeek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, eta mankomunitateak, Patzuergoak, konsortzioak edo beste udalaz gaindiko erakundeekin , eta baita ere beste erakunde publiko eta pribatuekin batera jarduteko moduak ezartzeko. Mankomunitateen osaketari buruz, honako hau dio Euskadiko Erakunde Publikoaren 103. Artikuluak:

103. art Lurralde historiko bat baino gehiagokoak eta autonomia-erkidego desberdinetakoak diren udalerrien mankomunitateak.

1.- Lurralde historiko bat baino gehiagokoak diren udalerrien mankomunitateek artikulu honetan xedatutakoa eta aplikatzekoak zaizkien lege honetako beste xedapen batzuk bete beharko dituzte.

2.- Mankomunitateak eratzeko eta haien estatutuak egin eta onartzeko prozedura honako hau izango da:
a) Estatutuen aurreproiektua egitea, legezkotasuna, egokitasuna eta egokitasuna egiaztatzen duten azterlan, txosten eta gainerako aurrekariekin, mankomunitatea sustatzen duten udalerri guztietako zinegotziek osatutako batzorde tekniko baten bidez. Batzorde hori udaletako osoko bilkurek izendatuko dute. Prozedura kudeatzeko eskumena horietako bati emango zaio, eta hark izapidetuko du guztien ordezkaritzan, eta jatorrizko dokumentuak zainduko ditu.
b) Estatutuen proiektua udalerri sustatzaile guztietako alkateek eta zinegotziek osatutako batzar batek onartzea. Batzar horren funtzionamendua udal sustatzaileen osoko bilkurek zehaztuko dute, eta, halakorik ezean, kide anitzeko organoak erregulatzeko oinarrizko arauek.
c) Estatutuen proiektua jendaurrean jarriko da hogei egunez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den iragarki baten bidez. Iragarki hori prozedura kudeatzen duen udalak bidaliko du, eta, bertan, mandatu bakoitzak estatutuen proiektua onartzeko erabakia hartu izanaren ziurtagiria jasoko da, bai eta foru aldundien behin betiko txostena ere.

3.- Mankomunitatea eratu ondoren, nahi duten udalerriak atxiki ahal izango dira mankomunitatera, estatutuetan zehaztutako prozedurari jarraituz. Nolanahi ere, mankomunitatearen atxikipena eta estatutuak onartu beharko dira atxiki nahi den udalaren osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, eta jendaurreko informazioaren izapidea eta foru-aldundien txostena egin, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta aldaketa Toki Erakundeen Erregistroan inskribatu beharko da, aurreko paragrafoan ezarritako moduan.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

4.- Estatutuek, gutxienez, honako puntu hauek jaso beharko dituzte:

a) Mankomunitatearen izena, egoitza eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien zerrenda.

b) Xedeak eta eskumenak zehaztea.

c) Gobernu- eta administrazio-organoak, bai eta kideen osaera, izendapenmodua eta karguuztea. cve: BOE-A-2016-4171. Hemen egiazta daiteke: http://www.boe.es BOLETÍN OFICIAL 105 Astelehena, 2016ko maiatzaren 2a I. 29341

d) Gobernu-organoen eta administrazio-kudeaketako organoen, eta, hala badagokio, gerentziaren funtzionamendu-arauak.

e) Kide diren udalerrien ekarpenak eta erakundearen beraren gainerako baliabide ekonomikoak.

f) Mankomunitatearen iraupena.

g) Estatutuak aldatzeko prozedura. lege honetan aurreikusitakoaren arabera. h) Udalerriak sartzeko eta bereizteko prozedura, eta udalerrien desegiteprozedurak eta mandatuak.

5.- Mankomunitateek toki-araubidearen oinarrizko legeriak udalerriei esleitzen dizkien ahal guztiak izango dituzte, baldin eta beren estatutuetan hala jasotzen badira, edo, aurreikuspen hori ez badago, beren helburua betetzeko behar dituzten eta indarrean dagoen araudiak udalerriei aitortzen dizkien ahal guztiak baliatu ahal izango dituzte, ahal horietako bakoitzari aplikatu beharreko legeriaren arabera.

6.- Mankomunitateek jabetza kentzeko ahala beren gain hartu ez dutenean, okupatu beharreko ondasunak kokatuta dauden udalerriak baliatuko du ahal hori, betiere mankomunitatearen eskariz eta onurarako; foru-aldundiak, baldin eta lurralde historiko bereko udalerri batean baino gehiagotan badaude; edo autonomia-erkidegoko administrazioak, baldin eta lurralde desberdinetako udalerrietan badaude.

7.- Mankomunitatearen gobernu-organoak, horien eskurantzak eta funtzionamenduaraubidea zehazterakoan toki-autonomiari zor zaion errespetuari kalterik egin gabe, mankomunitatearen estatutuek bermatuko dute ordezkaritzaorganoaren osaerak kontroleginkizunak bere gain hartzea eta udalerri guztietako kide hautetsien benetako presentzia

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

bermatzea, eta bakar batek ere ezin izango du gehiengo osoa izan. Udalen ordezkaritza-organoko ordezkariak udalerri bakoitzak izendatuko ditu, azken udal-hauteskundeetan lortutako emaitzekiko modu proportzionalean.

8.- Artikulu honetan araututako mankomunitateak desegiteko espedienteak, tokiaraubidearen oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera, mankomunitatea eratzeko eta mankomunitatearen estatutuak onartzeko eskatzen diren arau beretara egokituko dira.

9. Autonomia Erkidegoko udalerriek, toki-araubidearen oinarrizko legeriarekin bat etorriz, beste autonomia-erkidego batzuetako udalerriekin mankomunitateetan integratu ahal izango dute, lege honetan ezarritako baldintzetan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidego ukitu bateko edo batzuetako legeriak zehazten duenarekin bat etorriz. Kasu horretan, artikulu honen hirugarren paragrafoan aurreikusitako aurretiazko txostenaren ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean tokiaraubidearen arloko eskumena duen organoak egingo du.

UEMAk aurkeztutako Estatutuek legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte.
Behin-behineko akordioa gehiengo osoz hartu behar da ,eta Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean jendaurrean jarri eta alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehena.- Zegamako Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatera atxikitzea ONARTZEN da.

Bigarrena.- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Estatutuak onartzea.

Hirugarrena.- Akordio hau jendaurrean jartzea hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Epe hori pasata, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren toki-araubidearen arloko órgano eskudunari 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 103.3 eta 103.9 artikuluetan aurreikusten den txostena eskatzea.

Laugarrena.- UEMAri eskatzea egingo duen batzar nagusian, Zegamako Udala mankomunitatearen kidetzat onar dezatela.

Bostgarrena.- Akordio honen berri Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari ematea.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

3.- ANGEL IRIGORAS ORMAZABALEK AURKEZTUTAKO EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN GUTXIENEKO 1.080 EUROKO PENTSIOAREN ALDEKO MOZIOA.

Alkateak, Angel Irigoras Ormazabalek EHPM (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua)ren izenean aurkeztu duen mozioa azaltzen du.

GUTXIENEKO PENTSIOA 1080 MOZIOA PENSION MÍNIMA DE 1080

EHPM-MPEHren 1080 MOZIOA

Udaletan, foru-aldundietan eta EUDELen aurkezteko

EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du ZEGAMAko Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko dlru sarrerak lzatea bermatzea, 14 ordain sarltan

Idazki honekin batera do-akizue Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatest.en dugu kostua.

Txostena eskari horrekin hasten da:

"EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskarl hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu,· azken horiei, gainera, eskatzen d/egu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hpri 1080 eurora arte osa dezate/a hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren aza/penean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatuko dugu."

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezue-n bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazko dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errebalorizatzearen ondorioak nabarm6nak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... *egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, boina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo.*

Pentsiook so/doto gerorotuak díro, zalantzarík gabe, eta hoíen zenbatekoo zuzenean lotuta dogojosotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina do 2011n Gutxieneko Pentsioon LGSren % 93,7 izotea eta 2023an % 72,5 izateo. "

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponentzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak aiintzeko, etab. **Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.**

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdinta suna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonek ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, ZEGAMA-ko udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:

I. EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2. EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, ... **,egun honetan.**

Euskal Herria, Zegama, 2023ko Azaroa

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehena.- Angel Irigoras Ormazabalek aurkeztutako Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren gutxieneko 1.080 euroko pentsioaren aldeko MOZIOA onartzea.

4.- 2024 URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA

2024. urterako Udal honetako plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren berri ematen da.

Adierazitakoa ikusirik, eta 2024ko Plantila Organikoan eta Lanpostuen Zerrendan jasotakoa aztertu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

LEHENENGOA.- Adierazitakoaren arabera, Udaleko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda honakoaren arabera onartzea:

I. ERANSKINA / ANEXO I

2024ko plantilla organikoa Plantilla orgánica para el año 2024

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	LANPOSTU KOPURUA/ NÚMERO DE PUESTOS	TALDEA/ GRUPO	EGOERA/ SITUACIÓN
IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA/ FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN NACIONAL Idazkari-Kontuhartzailetzako azpieskala/ Subescala de Secretarios-Interventores			
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/	1	A1-A2	H-V

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

SECRETARIO/A-INTERVENTOR/A			
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Administrarien Azpieskala/ Subescala Administrativa			
BALIABIDE PUBLIKO, PERTSONALA ETA KONTUEN ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN DE LOS RECURSOS PÚBLICOS, PERSONAL Y CUENTAS	1	C1	J
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Azpieskala teknikoa/ Subescala técnica			
Gizarte Langilea/ Trabajador/a Social	1	A2	H-V **
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Zerbitzu berezietako Azpieskala/ Subescala servicios especiales			
Liburuzaina eta gazte koordinatzailea/ Bibliotecario/a y coordinador/a de juventud.	1	C1	H-V**
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Laguntzaileen Azpieskala/ Subescala Auxiliar			
Administrazio Orokorreko Administrari Laguntzailea/ Auxiliar Administrativo/a de Administración General	1	C2	H-V**
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Zerbitzu berezietako Azpieskala/ Subescala servicios especiales			
Euskara eta Kultura teknikaria/ Técnico/a de Euskara y Cultura.	1	A2	F*
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa / Cuerpo Superior Facultativo			

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko eskala/ Escala de Edificación, Urbanismo y Ordenación del Territorio	1	A1	H-V

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	Lanpostu kopurua/ Número de puestos	Taldea/ Grupo	Egoera/ Situación
Zeregin Anitzetako Ofiziala/ Oficial de cometidos múltiples	1	C2	F
Balio anitzeko peoia. Peón/a polivalente.	1	A.P.	H-V

EGOERA-SITUACIÓN
J-P: Jabea-Propiedad
F: Finkoa -Fijo
H-V: Hutsik-Vacante
(*)Este puesto de trabajo está ocupado por personal laboral.
(**) Ocupado por personal con contrato laboral temporal.

BIGARRENA. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 egun baliodunetan. Epe horretan, interesdunek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkez diezazkiokete, egoki jotzen badute. Erabakia behin betiko onetsitzat joko da, baldin eta epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

5.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako eta 2024ko martxoaren 5eko Ogasun Batzordetik pasatako honako faktura zerrenden berri ematen da.

2 zenbakidun fakturen erlazioa (Otsaila); guztira 30.065,90 euro.

6.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

"Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa bideratzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

1.- Lizitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2018-09-27
2.- Eskaintzen aurkezpena: 2018-10-15 arte, 15.00 orduak.
3.- "A" kartazalaren irekiera, "kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta balio judizio bidez balioztatu daitezkeen irizpideak": 2018-10-16 11:45 orduetan.
4.- "B" kartazalaren irekiera "diru-proposamena eta automatikoki balioesteko irizpideak": 2018-10-16 13:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 16an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonsori 1234H NA (azken lau zenbakiak) esleitzea.

Zegozkion agiriak aurkeztu ondoren, Udalbatzarrak, 2019ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonso jaunari esleitzea erabaki zuen, hurrengo era honetan:

Prezioa: 1.350,00 euro gehi BEZ hilabeteko.
Egite epea: Bi (2) urte, luzagarria gehienez sei (6) urte egin arte.
Bermearen zenbatekoa: 2.500,00 euro.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak.

Zentzu horretan, eta hasierako esleipenetik bi urte igaro direla kontuan hartuz, kontratu horren urtebeteko luzapena formalki onartzea dagokio.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa urtebetez luzatzea onartzea.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Bigarrena.- Erabaki hau Eduardo Cuesta Alonso jaunari jakinaraztea.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen zerrendaren berri ematen du:

- 03/0224 erabakia, otsailaren 7koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 04/0224 erabakia, otsailaren 8koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 05/0224 erabakia, otsailaren 14koa, obra handiko lan baimena emateari buruzkoa, Eliz-Muño etxerako sarbidea hobetzeko.
- 06/0224 erabakia, otsailaren 15ekoa, Abel Cuñadok aurkeztutako erreklamazioari erantzuna ematen diona.
- 07/0224 erabakia, otsailaren 15ekoa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan familia ugariak direlako hobariaren onuradunen zerrenda onartuz.
- 08/0224 erabakia, otsailaren 15ekoa, Ondasun Higiezinen gaineko Zergan familia ugariak direlako hobarien onuradunen zerrenda onartuz.
- 09/0224 erabakia, otsailaren 16koa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2024ko Errolda onartuz.
- 10/0224 erabakia, otsailaren 22koa, Zegamako Udalean peoi lanak burutzeko, Rafael Olaziregi Borda jauna kontratatzeari buruzkoa.
- 11/0224 erabakia, otsailaren 23koa, Ignacio Ïbarretxe Pariente jaunak jarritako errekurtsoari erantzunez.
- 12/0224 erabakia, otsailaren 27koa, 2 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila) onartuz; guztira 30.065,90 euro.
- 13/0224 erabakia, otsailaren 27koa, Zegamako jubilatu egoitza berria izango den lokala egokitzeko pleguen onarpenari buruzkoa.
- 14/0224 erabakia, martxoaren 1ekoa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 01/0324 erabakia, martxoaren 7koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 02/0324 erabakia, martxoaren 7koa, Osoko Bilkuraren ohizko batzarraldirako deialdia eginez.

SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

6.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2024Ko .....k .....

O.E./ VºBº
ALKATEAK/ EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2024.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO

EKS | CSV: **SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	MARTXOAK 12KO UDALBATZARREKO AKTA
CSV/EKS:	SINA027c2a6c-b421-4281-abe7-624de5bc8d95

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IKER ZUBELDIA CATARAIN - 72478431A
Data / Fecha: 2024/03/18 14:00:34

Sinatzailea 2 / Firmante 2: LIERNI ASURABARRENA ZIPITRIA - 72474562K
Data / Fecha: 2024/03/18 14:45:26